



EOS

Mundua musika bilakatu zen



Andrea Zuvoski

Lagunek erran dautate; «ze?! haier buruz eginen dun kronika?! burges-orkestratxarra-kulturaherrikoisuntsitzai-le-ñoños16.... »

- Bai !
- Goazen !

Lehendabizi, sorpresa! Kursaalaren ez nintzen sekulan sartu, eta alimaleko gela da! Ene lekua gain gainean nuen, oholtzatik urrunena (merkeena, 7 euro). Lehen aldia zen horrelako musika zuzenean entzuterat etortzen nintzela.

Eszena gainean, ehunka aulki huts, birtuoso ipurdi mazelen zain. Eta etorri dira, birtuosoak; 4 Kontrabaxu, 6 biolontxelo, 8 altu, 20 biolin (9 bigarren, 10 lehen, eta solista bat), 12 aerofono (zehir flauta, oboe, tronboi, adar...) eta 2 perkusio jole (2 metroko bonbo batekin!). Orkestra zuzendaria sartu da,

azkenean, argiak itzali, eta hasi dira musikariak!

Mekauendios! Ez ziren 30 segundo pasa, malkoak begietan nituela. Orkestrak, akustikoan jotzen du. Mikrofonorik ez. Nahiz eta haietarik 60 bat metrotarik izan, soinuaren inpaktua zuzenki biltzen nuen. Aitzinean zirenek, xehetasun guziak sumatu behar zituzten, belarria kilikatzen dauzkizuten *pizzicato* ttipienetatik, bonboaren ferekatzeak askatzen dituen infra baxuek tripa hartu arte.

Lehen zatiak 10 bat minutu iraun ditu. Txalo. Ondotik etorri da Ingrid Fliter pianista. Harekin beste 30 minutuz segitu dute. Pianista ikaragarria. Lehen zatian nahiko «largo» bazen giroa, hor nuentzien unibertsoan sartu gira. Jautsi, galdu, norabide berri bat, ahantzi, berriz etorri, igo, igo, igo, BUUM! Timbal-bonbo-gong koktelak nire aulkiaren zokorat bidaltzen ninduen. Aspaldian ez ninduen zerbaitek (norbaitek) horrela hartu! Harrigarria.

EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOAREN KONTZERTUA

Urtarrilaren 18an Euskadiko Orkestra Sinfonikoak kontzertua ematen zuen Kursaalaren, Donostian.

Afixan erraiten zutenaz,

Maurice Ravelen doinuak eman behar zituzten, hiru zatitan, Jun Märkl-en zuzendaritzapean.

Pausa bat 10 minutukoa. Berriz etortzen dira musikariak baina zenbaki bi-koitzean! Hasieran 55 baziren, orain 110 bat pasa!

Kasik ordu batez segitu daukute, eta berriz ere harrigarria. Ikuskizun bat, hainbat esku, beso, ber momentuan mugitzen, ber jesturen errepikatzen.

Hunkigarria, barne korapiloraino.

Orkestra zuzendariak, bere tropak musika sakonaren gerlarat bidaltzen zituen. Pirata kapitain bat, bere itsasontzi gainean, odei hertza suntsitu nahian; «urrikirik ez! eutsi! eman eman! Oraindik gehiago!». Apokalipsiaren zaldunen jeneralak, adar puska batekin zuzentzen zuen mundua.

Gau horretan beste mundu batetara ihes egin bainuen, 1.30'diz.

Kontzertuetan, musikaren mundurat iritsi nahi dugu gehienetan; gau horretan, mundua musika bilakatu zen.

Irakurle oroer, eta nire laguner gomendatzen dutan esperientzia bat! ■